Sare Sozialak

# Hiztegia



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

## Sare Sozialak

# HIZTEGIA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2017

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren
*Bibliotekak* sarearen katalogoan aurki daiteke:

**http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac**

| | |
|---|---|
| Argitaraldia: | 1.a, 2017ko xxxx |
| Ale-kopurua: | 1.500 ale |
| © argitaraldi honena: | Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra |
| Argitaratzailea: | Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia<br>Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco<br>Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz |
| Internet: | http://www.euskara.euskadi.eus/euskalterm |
| Azala: | Concetta Probanza |
| Inprimaketa: | XXXXXXXXXXXXXXXXXXX |
| ISBN: | XXXXXXXXXXXXXX |
| Lege gordailua: | XXXXXXXXX |

# HITZAURREA

Beste edozein hizkuntza bezalaxe, euskara ere berritzen eta modernizatzen doa egunetik egunera, bizirik dagoen seinale. Bide horretan ezinbestekoa da euskararen aberastasun lexikoa elikatzea, zaintzea eta sustatzea, bai hizkuntza bera normalizatzeko, bai erabiltzaileen premietara egokitzeko. Hain zuzen ere, helburu horiek bete nahian ikusi du argia eskuartean duzun hiztegi honek, orrialde hauetan jorratzen den eremuko erabiltzaile eta hiztunek lanabes erabilgarria izan dezaten beren egunerokoan.

Hiztegi honetan aurkituko duzun terminologia Euskararen Aholku Batzordearen Terminologia Batzordeak gomendatutakoa da. Batzordeari dagokio, besteak beste, terminologia-alorrean dauden lehentasunak finkatzea, lan-proposamenak egitea, terminologia-lanerako irizpideak ezartzea, ponderazio-markak finkatuta termino lehiakideen arteko lehentasunak jartzea eta terminoen erabilera onestea eta gomendatzea.

Terminologia Batzordeak onartutako gainerako hiztegiak bezala, hiztegi hau ere EUKALTERM Euskal Terminologia Banku Publikoan www.euskara.euskadi.eus/euskalterm dago integratuta.

Banku hau etengabe elikatzen eta zabaltzen ari gara Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzatik IVAPekin lankidetzan, Eusko

Jaurlaritzak bideratu eta sustatu nahi duen terminologiaren produkzioaren, kudeaketaren eta hedapenaren muina izan dadin. EUSKALTERM metodologia eta irizpide jakin batzuen arabera eguneratu eta elikatzen da, betiere Terminologia Batzordeak onartutako jarduketa-planei jarraituz.

Hiztegi hau erabiltzaileen oinarrizko premiak asetzeko baliagarri izatea nahi genuke, hemen jorratzen den terminologiaren erabilera normalizatzeko eta gure hizkuntzaren eguneratzearen bidean urrats garrantzitsua izan dadin. Hiztegi hau eta honekin batera argitaratzen ditugun guztiak eguneroko jardunean erabiltzera animatzen zaituztegu, euskaldunok gero eta hizkuntza aberatsagoa izan dezagun.

*Vitoria-Gasteiz, 2017ko ekainaren 29a*

**Miren Dobaran Urrutia**
Hizkuntza Politikarako sailburuordea

## HIZTEGIARI BURUZKO ARGIBIDEAK

Hiztegi hau UZEI Terminologia eta Lexikografia Zentroak egin du EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa (www.euskara.euskadi.eus/euskalterm) eguneratzeko eta elikatzeko entitate horrek Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin (HPS) izenpetutako kontratuaren barruan. Kontratua HPSk eta IVAPek finantzatu dute, bi erakunde horiek sinatutako hitzarmenaren bidez.

EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa da Terminologia Batzordeak[1] finkatutako terminologia-lana zabaltzeko ardatza. Aldi berean esan behar da Terminologia Batzordeak onartutako jarduketa-planen barruan ezarritako lehentasunen arabera eguneratzen dela Terminologia Banku Publikoa. Euskararen Aholku Batzordeko Terminologia-batzorde atal bereziak euskarazko terminologia-lanerako finkatu zuen metodologiari jarraituta, hiztegi hau, lehenengoz, hizkuntzalariez eta eremuko adituez osatutako batzorde teknikoak aztertu eta landu zuen, Terminologia Batzordeari behin betiko proposamena luzatzeko. Normalizazio-prozesuaren azken urratsa Terminologia Batzordeak onartzea izan da. Beraz, hemen duzue eremu honetako terminologiaren erabiltzaileei **Terminologia Batzordeak gomendatzen dien terminologia.**

1 176/2007 DEKRETUA, urriaren 16koa, Euskararen Aholku Batzordeari buruzkoa.

**Hiztegian erabilitako ponderazio-markak:**

*(4)* Termino normalizatua/gomendatua
*(3)* Termino onartua (baina ez lehenetsia, beste bat gomendatzen delako)

Hiztegian erabilitako laburtzapenak:

**eu** euskara
**es** español
**fr** français
**en** English

**Sin.** sinonimoa
**Ik.** ikus

# NORMALIZAZIOA

### BATZORDE TEKNIKOA

**Maite Goñi** (Mondragon Unibertsitatea)
**Rafa Bañales** (Euskaltel-eko Sarearen eta Zerbitzuen Ingeniaritza Arloa)
**Iker Etxebeste** (UZEI)
Koordinatzailea: **Nerea Laskibar**
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)

### TERMINOLOGIA BATZORDEA

**Patxi Baztarrika Galparsoro**, Hizkuntza Politikarako sailburuordea, batzorde-ataleko lehendakaria
**Eneko Oregi Goñi**, IVAPeko zuzendariordea, batzorde-ataleko lehendakariordea
**Jorge Giménez Bech**, EABko eta batzorde-ataleko idazkaria
**Araceli Díaz de Lezana Fernández de Gamarra**, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako ordezkaria
**Maite Imaz Leunda**, IVAPeko ordezkaria
**Andoni Sagarna Izagirre**, Euskaltzaindiaren ordezkaria
**Iker Etxebeste Zubizarreta**, Unibertsitate Zerbitzuetarako Euskal Ikastetxeko (UZEI) ordezkaria
**Xabier Alberdi Larizgoitia**, Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Institutuko ordezkaria
**Ibon Olaziregi Salaberria**, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Euskara Zerbitzuaren ordezkaria
**Mertxe Olaizola Maiz**, aditua
**Joseba Erkizia Itoitz**, aditua
**Asier Larrinaga Larrazabal**, aditua
**Miel Loinaz Beristain**, aditua
**Alberto Atxabal Rada**, aditua
**Alfontso Mujika Etxeberria**, aditua

## UZEI-REN LANKIDE IZAN DIREN ADITUAK

**Joxe Rojas**. Interneteko teknologietan aditua eta dibulgatzailea

# Eremu-zuhaitza

1 **Sare sozialen motak eta sare sozialekin erlazionaturiko aplikazioak**

2 **Sare sozialen funtzioak, osagaiak eta elementuak**

3 **Termino orokorrak**

# AURKIBIDEA

**Bokabularioa sailka**

1. Sare sozialen motak eta sare sozialekin erlazionaturiko aplikazioak. . . . . . . . . . . . . . . . . 14
2. Sare sozialen funtzioak, osagaiak eta elementuak . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 19
3. Termino orokorrak . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 31

**Euskarazko aurkibidea** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 43

**Gaztelaniazko aurkibidea** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 51

**Frantsesezko aurkibidea** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 57

**Ingelesezko aurkibidea** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 63

**Erreferentzia bibliografikoak**. . . . . . . . . . . . . . . . . . 69

# Bokabularioa sailka

# 1. SARE SOZIALEN MOTAK ETA SARE SOZIALEKIN ERLAZIONATURIKO APLIKAZIOAK

**agregatzaile**
Ik. batzaile

1
**aplikazio** *(4)*
**es** aplicación
**fr** application
**en** application

2
**aplikazio mugikor** *(4)*
Sin. app *(4)*
Telefono mugikorretan, tabletetan eta antzeko gailu mugikorretan exekutatzeko bereziki diseinatutako aplikazioa.
**es** aplicación móvil; app
**fr** application mobile; appli
**en** mobile application; app

**app**
Ik. aplikazio mugikor

3
**atari** *(4)*
**es** portal
**fr** portail
**en** portal

4
**audioblog** *(4)*
Audio-fitxategiak argitaratzeko eta partekatzeko helburu nagusia duen bloga. Sarrera bakoitzean audio-fitxategi bat gehitu ohi da; gehienetan, etiketatua.
**es** audioblog
**fr** blogue audio
**en** audioblog

**banaketa-zerrenda**
Ik. posta-zerrenda

5
**batzaile** *(4)*
Sin. agregatzaile *(4)*; RSS irakurle *(4)*
Harpidetutako hainbat informazio-kanal automatikoki arakatu eta bertako edukia erakusten eta antolatzen duen aplikazio edo webgunea.
**es** agregador; lector RSS
**fr** agrégateur; lecteur RSS
**en** feed aggregator; RSS reader

6
**bideoblog** *(4)*
Sin. vlog *(4)*; vblog *(4)*
Bideoak argitaratzeko eta partekatzeko helburu nagusia duen bloga. Sarrera bakoitzean bideo bat gehitu ohi da; gehienetan, etiketatua.
**es** videoblog; vlog; vblog
**fr** blogue vidéo
**en** video blog; vlog; vblog

7
**blog** *(4)*
Sin. weblog *(4)*
Webgune pertsonal edo kolektiboa, aldizka-aldizka eguneratzen dena erabiltzaileak idatzitako sarrera edo artikuluen bitartez. Sarrera edo artikulu horiek kronologikoki ordenatuta eskaintzen dira, berrienetik zaharrenera, eta bisitariek iruzkinak egin ditzakete.
**es** blog; weblog
**fr** blogue
**en** blog; weblog

**blog kolektibo**
Ik. talde-blog

8
**blog korporatibo** *(4)*
**es** blog corporativo
**fr** blogue d'entreprise
**en** corporate blog

9
**blog pertsonal** *(4)*
**es** blog personal
**fr** blogue personnel
**en** personal blog

10
**blog-plataforma** *(4)*
**es** plataforma de blogs
**fr** plateforme de blogues
**en** blog platform

11
**folksonomia** *(4)*
Edukia era kolaboratiboan eta hierarkizaziorik gabe sailkatzeko prozedura, egindako sailkapenak beste erabiltzaileekin partekatzeko aukera ematen duena. Sare sozialeko inguruneetan erabiltzen da, hala nola Delicious edo Diigo (estekak), Flickr edo Instagram (argazkiak), Youtube (bideoak) eta antzekoetan.
**es** folcsonomía
**fr** folksonomie
**en** folksonomy

12
**folksonomia estu** *(4)*
Erabiltzaile bakoitzak bere edukiak baino etiketatzen ez dituen folksonomia. Ondorioz, elementu bakoitza pertsona bakarrak etiketatzen du. Folksonomia estuaren adibide gisa, Flickr aipa daiteke: erabiltzaile bakoitzak berak igotako irudiak baino ez ditu etiketatzen.
**es** folcsonomía estrecha
**fr** folksonomie étroite
**en** narrow folksonomy

13
**folksonomia zabal** *(4)*
Erabiltzaile guztiek eduki guztietan etiketak gehitzeko aukera eskaintzen duen folksonomia. Ondorioz, erabiltzaile askok elementu berbera etiketa dezakete, eta elementu horren informazioa osatuz joango da. Folksonomia zabalaren adibide ezaguna Delicious da.
**es** folcsonomía amplia
**fr** folksonomie générale
**en** broad folksonomy

14
**foro** *(4)*
Interneten eztabaidak edo iritzi-trukea egiteko webgunea, erabiltzaileek gai bati buruz idatzitako mezuak eta erantzunak jasotzen dituena.
**es** foro
**fr** forum
**en** forum

15
**fotoblog** *(4)*
Argazkiak argitaratzeko eta partekatzeko helburu nagusia duen bloga. Sarrera bakoitzean argazki bat gehitu ohi da; gehienetan, etiketatua.
**es** fotoblog
**fr** blogue photo; photoblogue
**en** photoblog

**geolokalizazioko gizarte-sare**
Ik. geolokalizazioko sare sozial

16
**geolokalizazioko sare sozial** *(4)*
Sin. geolokalizazioko gizarte-sare *(4)*
Leku edo puntu konkretuak koordenatu-sistema jakin batean kokatzeko aukera eskaintzen duen sare soziala.
**es** red social de geolocalización
**fr** réseau social de géolocalisation
**en** geolocation social network

**gizarte-sare**
Ik. sare sozial

**gizarte-sare bertikal**
Ik. sare sozial bertikal

**gizarte-sare horizontal**
Ik. sare sozial horizontal

**gizarte-sare mugikor**
Ik. sare sozial mugikor

17
**linklog** *(4)*
Estekak partekatzeko helburu nagusia duen bloga. Sarrera bakoitzean esteka bat gehitu ohi da.
**es** linklog
**fr** linklog
**en** linklog

18
**markatzaile sozial** *(4)*
Internet bidez estekak bildu, sailkatu eta partekatzeko aukera ematen duen lineako zerbitzua. Zerbitzu hori eskaintzen duen plataforma ezagun bat Delicious da.
**es** marcador social
**fr** marque-page social; partage de signets
**en** social bookmarking

19
**mikroblog** *(4)*
Karaktere-kopuru laburreko sarrerak idazteko blog-sistema berezia. Twitter da era horretako zerbitzu ezagunena.
**es** microblog
**fr** microblogue
**en** microblog

20
**mikroblog-plataforma** *(4)*
**es** plataforma de microblogs
**fr** plateforme de microblogues
**en** microblog platform

21
**moblogging** *(4)*
Gailu mugikorren bidez blogak idazteko, eguneratzeko eta irakurtzeko jarduera.
**es** moblogging
**fr** blogage mobile
**en** moblogging

22
**multimedia-plataforma** *(4)*
**es** plataforma multimedia
**fr** plateforme multimédia
**en** multimedia platform

23
**plataforma** *(4)*
Softwareko eta hardwareko hainbat modulu eta eginbide funtzionatzeko erabiltzen den sistema.
**es** plataforma
**fr** plateforme
**en** platform

24
**posta-zerrenda** *(4)*
Sin. banaketa-zerrenda *(4)*
Helbide elektronikoen zerrenda, izen bakar baten bidez identifikatua eta helbide elektroniko propioa duena. Mezu bat bidaltzen denean zerrendaren helbidera, zerrendakide guztiei birbidaltzen zaie.
**es** lista de correo; lista de distribución
**fr** liste de diffusion; liste de distribution
**en** mailing list; distribution list

**RSS irakurle**
Ik. batzaile

25
**sare sozial** *(4)*
Sin. gizarte-sare *(4)*
1. Interneteko plataforma bat erabiliz informazioa partekatzen eta trukatzen duten internautek eratutako komunitatea. 2. Internauten komunitate batek informazioa partekatzeko eta trukatzeko erabiltzen duen Interneteko plataforma.
**es** red social
**fr** réseau social
**en** social network

26
**sare sozial bertikal** *(4)*
Sin. gizarte-sare bertikal *(4)*
Erabiltzaileak eduki-mota edo gai jakin batekin harremanetan jartzen dituen sarea. Eduki horiek izan daitezke, adibidez: argazkiak (Flickr, Instagram), bideoak (YouTube, Vimeo), musika (Spotify) eta aurkezpenak (Scribd, Slideshare).
**es** red social vertical
**fr** réseau social vertical
**en** vertical social network

27
**sare sozial horizontal** *(4)*
Sin. gizarte-sare horizontal *(4)*
Era guztietako edukia partekatuz harreman horizontala edo parekoa bideratzen duen sarea, adibidez: Facebook, Google plus, Tuenti eta Twitter.
**es** red social horizontal
**fr** réseau social horizontal
**en** horizontal social network

28
**sare sozial mugikor** *(4)*
Sin. gizarte-sare mugikor *(4)*
**es** red social móvil
**fr** réseau social mobile
**en** mobile social network

**spam blog**
Ik. splog

29
**splog** *(4)*
Sin. spam blog *(4)*
Webgune jakin batzuk sustatzeko helburu hutsa duen bloga. Webgune horiek bilatzaileetan duten posizioa hobetu nahi izaten dute, gero bertan bisitarien arabera ordaintzen duten publizitate-iragarkiak argitaratzeko asmoz.
**es** splog; spam blog
**fr** splogue
**en** splog; spam blog

30
**talde-blog** *(4)*
Sin. blog kolektibo *(4)*
Blogari bakarra izan ordez hainbat blogarik idatziz osatzen duten bloga.
**es** blog colectivo
**fr** blogue collectif
**en** group blog; collaborative blog

**tlog**
Ik. tumblelog

31
**tumblelog** *(4)*
Sin. tlog *(4)*
Egitura txikiko blog-mota, gai edo hari zehatzik gabe egilearen gogoeta laburrak, irudiak, bideoak edo bestelako edukiak argitaratzen dituena.
**es** tumblelog; tlog
**fr** tumblelog
**en** tumblelog; tlog

**vblog**
Ik. bideoblog

**vlog**
Ik. bideoblog

32
**web-aplikazio** *(4)*
Sin. web-app *(4)*
Web-arakatzaile bat erabiliz urrutiko zerbitzari batean exekuta daitekeen aplikazioa.
**es** aplicación web
**fr** application Web
**en** web application; web-based application; web app

**web-app**
Ik. web-aplikazio

**weblog**
Ik. blog

33
**wiki** *(4)*
Hainbat erabiltzailek web-nabigatzailearen bidez edita dezaketen web-aplikazioa. Erabiltzaileek modu sinkronoan edo asinkronoan bertako orriak nahi bezala sortu, aldatu eta editatzeko aukera dute.
**es** wiki
**fr** wiki
**en** wiki

# 2. SARE SOZIALEN FUNTZIOAK, OSAGAIAK ETA ELEMENTUAK

34
**a bildu** (iz.) *(4)*
Hainbat sare sozialetan goitizenaren edo erabiltzaile-izenaren hasiera adierazteko erabiltzen den ikurra: @.
**es** arroba
**fr** arobase; arrobe; a commercial
**en** at sign

35
**administratzaile** *(4)*
**es** administrador
**fr** administrateur
**en** administrator

36
**aipu** *(4)*
Sare sozialetan erabiltzaile-izen bat gehitua duen mezu edo argitalpena. Erabiltzaile jakin bati zuzentzeko edo erreferentzia egiteko erabiltzen da.
**es** mención
**fr** mention
**en** mention

37
**alboko barra** *(4)*
Sare sozialaren orri edo horma nagusiaren alboan dagoen barra, hainbat funtzio eta aukera eskaintzen dituena.
**es** barra lateral
**fr** barre latérale
**en** sidebar

38
**album** *(4)*
Erabiltzaile batek sare sozial batean eratzen duen irudi- edo argazki-bilduma, normalean gai bati buruzkoa.
**es** álbum
**fr** album
**en** album

39
**antolatzaile** *(4)*
Facebookeko hitzordu bat antolatzen duen erabiltzailea.
**es** organizador
**fr** hôte
**en** host

40
**argitalpen** *(4)*
Sare sozialen bidez argitara ematen den testua, bidalketa edo bestelako edukia.
**es** publicación
**fr** publication
**en** publication

**artikulu**
Ik. sarrera

41
**atzeko planoko irudi** *(4)*
**es** imagen de fondo
**fr** image d'arrière-plan
**en** background image

**atzeraesteka**
Ik. trackback

42
**avatar** *(4)*
Sare sozial bateko erabiltzaile baten profilaren adierazpen grafikoa. Edozein irudi erabil badaiteke ere, profila pertsona bati badagokio, ohikoa izaten da pertsonaren argazkiren bat erabiltzea, eta, marka edo zerbitzu bati badagokio, logotipoa.
**es** avatar
**fr** avatar
**en** avatar

**BBS**
Ik. ohar-taula elektroniko

43
**bertikono** *(4)*
Sin. kaomoji *(4)*
Emotikono-mota berezia, jatorriz Japoniakoa, aurpegiaren irudia bertikalean irudikatzen duena; hau da, ez da burua albo batera okertu behar aurpegia ikusteko: adibidez, O_o harridura adierazteko edo >_< mina adierazteko.
**es** verticono; kaomoji
**fr** émoticône japonaise
**en** verticon; kaomoji

44
**bideotxat** *(4)*
Txat-mota berezia, Internet bidez audioa eta bideoa erabiliz zuzenean berriketan aritzeko aukera ematen duena.
**es** videochat
**fr** videochat; vidéobavardage
**en** videochat

45
**bigarren mailako konexio** *(4)*
LinkedInen moduko sare sozialetan, erabiltzaile baten lehen mailako konexio baten konexioa.
**es** conexión de segundo grado
**fr** connexion du deuxième degré
**en** second-degree connection

46
**bio** *(4)*
Erabiltzaileak profilean bere buruaren aurkezpen gisa idazten duen esaldi edo idazki laburra.
**es** bio
**fr** bio
**en** bio

**birtuit**
Ik. birtxio

**birtuiteatu**
Ik. birtxiokatu

47
**birtxio** *(4)*
Sin. birtuit *(4)*
Beste erabiltzaile batek lehenago bidalitako txio bat errepikatuz bidaltzen den txioa.
**es** retuit
**fr** retweet
**en** retweet

48
**birtxiokatu** *(4)*
Sin. birtuiteatu *(4)*
Beste erabiltzaile batek lehenago bidalitako txio bat errepikatzen duen txioa bidali.
**es** retuitear
**fr** retweeter
**en** retweet

49
**bitcoin** *(4)*
2009an Satoshi Nakamotok sorturiko kriptodirua.
**es** bitcoin
**fr** bitcoin
**en** bitcoin

50
**blogari** *(4)*
Blog batean idazten duen pertsona.
**es** bloguero
**fr** blogueur
**en** blogger

51
**blokeatu** *(4)*
Twitterren moduko sare sozialetan, erabiltzaile batek beste erabiltzaile bati bere jarraitzaile izatea eragotzi. Hortaz, erabiltzaile blokeatuak ezingo ditu blokeatzailearen txioak zuzenean jaso.
**es** bloquear
**fr** bloquer
**en** block

52
**cashtag** *(4)*
Twitterren, balore-burtsako konpainien emaitzak ikusteko erabiltzen den ikurra: $. Traolaren erabilera eta funtzio berak ditu, eta konpainiaren laburduraren aurrean jartzen da; adibidez, $GOOG, Google konpainiari buruzko informazioa eskuratzeko.
**es** cashtag
**fr** cashtag
**en** cashtag

**community manager**
Ik. komunitate-kudeatzaile

**datu-korronte**
Ik. streaming

53
**emoji** *(4)*
Telefono adimendunen bidezko mezularitzan edo web bidezko komunikazioetan erabiltzen den ideograma edo irudi estandarizatua, jatorriz Japoniakoa eta emotikonoen antzeko funtzioa betetzen duena.
**es** emoji
**fr** emoji
**en** emoji

54
**emotikono** *(4)*
ASCII karaktereekin egindako irudia, albo batetik begiratuta giza aurpegiaren itxura duena. Aurpegiaren espresioarekin bidaltzaileak bere gogo-aldartea adierazten du: adibidez, :) alaitasuna adierazteko, edo :( tristura adierazteko.
**es** emoticono
**fr** frimousse; émoticône
**en** emoticon

55
**erabiltzaile-interfaze** *(4)*
**es** interfaz de usuario
**fr** interface utilisateur
**en** user interface

56
**erabiltzaile-izen** *(4)*
**es** nombre de usuario
**fr** nom d’utilisateur
**en** user name

**erabiltzaile-kontu**
Ik. kontu

57
**erabiltzaile-zerrenda** *(4)*
**es** lista de usuarios
**fr** liste d’utilisateurs
**en** user list

58
**etiketa** *(4)*
Sin. tag *(3)*
Datu edo elementu bati atxikitzen zaion identifikatzailea. Kontzeptu, leku, erabiltzaile edo kategoria jakin batekin lotzen ditu irudiak, bideoak, testuak edo estekak, elementu hori deskribatuz eta haren berreskuratzea ahalbidetuz.
**es** etiqueta
**fr** étiquette; tag
**en** tag

59
**etiketatze** *(4)*
**es** etiquetado
**fr** étiquetage
**en** tagging

60
**eztabaida-hari** *(4)*
Posta-zerrenda edo foroetan, mezu bati erantzunez bidalitako mezu-katea, jatorrizko mezua ere hartzen duena.
**es** hilo de discusión
**fr** fil de discussion
**en** discussion thread

**fan**
Ik. zale

61
**favstar** *(4)*
Erabiltzaile askok gogokotzat markatu duten txioa idatzi duen erabiltzailea.
**es** favstar
**fr** favstar
**en** favstar

62
**follow friday** *(4)*
Twitterren, ostiraletan gertatu ohi den fenomeno berezia: norberari aipagarriak iruditzen zaizkion erabiltzaileak gomendatzen dira, #followfriday edo #FF traol-hitza erabiliz.
**es** follow friday
**fr** follow friday
**en** follow friday

63
**galeria** *(4)*
Elementu multimedien sail bat erakusten duen leihoa edo menua. Elementu horiek irudiak, soinuak edo bideoak izan daitezke, besteak beste.
**es** galería
**fr** galerie
**en** gallery

64
**geoetiketa** *(4)*
Geoetiketatzeko erabiltzen den etiketa edo markatzaile berezia, informazio geografikoa biltzen duena.
**es** geoetiqueta
**fr** géotag; balise de géolocalisation
**en** geotag

65
**geoetiketatze** *(4)*
Fitxategietako metadatuetan geoetiketak gehitzeko prozesua. Etiketa berezi horietan, informazio geografikoa zehazten duten datuak biltzen dira, hala nola geolokalizazioa errazteko koordenatuak.
**es** geoetiquetado
**fr** géomarquage; balisage géographique
**en** geotagging

66
**geolokalizazio** *(4)*
Sin. georreferentziazio *(4)*
Leku edo puntu konkretu bat koordenatu-sistema jakin batean kokatzeko teknika.
**es** geolocalización; georreferenciación
**fr** géolocalisation; géoréférencement
**en** geolocation; georeferencing

**georreferentziazio**
Ik. geolokalizazio

67
**gogoko** *(4)*
Interes berezikotzat edo gogoan hartzekotzat markatzen den txioa.
**es** favorito
**fr** favori
**en** favorite

68
**goitizen** *(4)*
Sin. nick *(3)*
Interneteko erabiltzaile batek bere buruari ematen dion izena, beste erabiltzaile batzuekin komunikatzeko erabiltzen duena.
**es** nick
**fr** pseudonyme; surnom
**en** nickname; nick

69
**harpidetza** *(4)*
**es** subscripción
**fr** abonnement
**en** subscription

**hashtag**
Ik. traol-hitz

70
**helbide elektroniko** *(4)*
Sin. posta elektronikoko helbide *(4)*
**es** dirección de correo electrónico
**fr** adresse de courrier électronique
**en** electronic mail address; e-mail address

71
**hirugarren mailako konexio** *(4)*
LinkedInen moduko sare sozialetan, erabiltzaile baten bigarren mailako konexio baten konexioa.
**es** conexión de tercer grado
**fr** connexion du troisième degré
**en** third-degree connection

72
**hitzordu** *(4)*
Facebooken moduko sare sozialetan, erabiltzaile batek sortzen duen orri berezia; lagunei ekitaldi edo gertaera jakin baten berri emateko eta bertarako gonbita zabaltzeko erabiltzen da.
**es** evento
**fr** événement
**en** event

73
**horma** *(4)*
Facebooken moduko sare sozialetan, erabiltzaile baten profilean dagoen atal nagusia. Argitaratzen dituen sarrera edo eguneratzeak biltzen ditu, eta lagunek iruzkinak edo estekak parteka ditzakete bertan.
**es** muro
**fr** mur
**en** wall

74
**iruzkin** *(4)*
Erabiltzaile batek blog edo sare sozial bateko sarrera bati erantzunez idazten duen testua.
**es** comentario
**fr** commentaire
**en** comment

75
**izu-botoi** *(4)*
Sare sozial batzuetan haur eta nerabeak babesteko ezarri den sistema. Haur edo nerabeenganako abusuren bat detektatzen bada sarean, baliabide hori erabil daiteke agintariei lehenbailehen horren berri emateko.
**es** botón del pánico
**fr** bouton d'alarme
**en** panic button

76
**jakinarazpen** *(4)*
**es** notificación; alerta
**fr** notification
**en** notification

77
**jarraitu** *(4)*
Twitterren moduko sare sozialetan, beste erabiltzaile baten txioak jasotzeko harpidetuta egon.
**es** seguir
**fr** être abonné
**en** follow

78
**jarraitzaile** *(4)*
Twitterren moduko sare sozialetan, beste erabiltzaile baten txioak jasotzeko harpidetuta dagoen erabiltzailea.
**es** seguidor
**fr** abonné
**en** follower

79
**jarraitzeari utzi** *(4)*
Twitterren moduko sare sozialetan, erabiltzaile batekiko harpidetza eten eta haren txioak jasotzeari utzi.
**es** dejar de seguir
**fr** se désabonner
**en** unfollow

80
**joerako gai** *(4)*
Sin. uneko gai *(4)*
Twitterren moduko sare sozialetan, une jakin bateko txioetan gehien aipatzen den gaia edo hitz-multzoa.
**es** tendencia del momento; tema del momento
**fr** tendance; sujet tendance
**en** trending topic

81
**joko** *(4)*
**es** juego
**fr** jeu
**en** game

82
**kanal** *(4)*
**es** canal
**fr** canal
**en** channel

**kaomoji**
Ik. bertikono

83
**kide** *(4)*
**es** miembro
**fr** membre
**en** member

84
**komunitate-kudeatzaile** *(4)*
Sin. community manager *(4)*
Interneteko komunitateak sortu, kudeatu eta dinamizatzeko ardura duen pertsona edo enpresa baten edota marka baten ospe digitala kudeatu eta zaintzen duen pertsona.
**es** gestor de comunidades; community manager
**fr** gestionnaire de communauté
**en** community manager

85
**konexio** *(4)*
LinkedInen moduko sare sozialetan, erabiltzaile batekin harremana eratua duen erabiltzailea.
**es** conexión
**fr** connexion
**en** connection

**konexio zuzen**
Ik. lehen mailako konexio

86
**kontaktu** *(4)*
Sare sozial baten bidez beste erabiltzaile batekin harremana eratu duen erabiltzailea. Sare sozial batzuek izen berezia ematen diote bertako kontaktuari (adibidez, Facebooken “lagun” deitzen zaie).
**es** contacto
**fr** contact
**en** contact

87
**kontu** *(4)*
Sin. erabiltzaile-kontu *(4)*
Sare sozialetako erabiltzaile batek sarean eskura duen informazio-atal berezia, erabiltzaile horri dagokiona. Erabiltzaile-izen eta pasahitz baten bidez sartzen da atal horretara, eta era pertsonalizatuan kudea dezake.
**es** cuenta; cuenta de usuario
**fr** compte; compte utilisateur
**en** account; user account

88
**kontu egiaztatu** *(4)*
Kontu-erabiltzailearen identitatea egiaztatua duen kontua. Kontu egiaztatuetan ikono berezi bat jarri ohi da (adibidez, ikur urdin argi bat Twitterren), kontu faltsua ez dela adierazteko.
**es** cuenta verificada
**fr** compte vérifié
**en** verified account

89
**kontu faltsu** *(4)*
**es** cuenta falsa
**fr** faux compte
**en** fake account

90
**kontu korporatibo** *(4)*
**es** cuenta corporativa
**fr** compte d'entreprise
**en** corporate blog

91
**kontu ofizial** *(4)*
**es** cuenta oficial
**fr** compte officiel
**en** official account

92
**kontu pertsonal** *(4)*
**es** cuenta personal
**fr** compte personnel
**en** personal account

93
**kriptodiru** *(4)*
Trukerako baliabide digitala, Interneteko transakzioetan diruaren funtzioa betetzen duena. Kriptografia erabiltzen da diru-sorrera eta eragiketak bermatzeko. Sortu zen lehen kriptodirua bitcoina da.
**es** criptomoneda; criptodivisa
**fr** crypto-monnaie
**en** cryptocurrency

94
**lagun** *(4)*
Facebooken, beste erabiltzaile baten kontaktu-zerrendan dagoen erabiltzailea. Lagun izateko, eskaera bidaltzen da, eta beste profilak onartu egin behar du eskaera hori; horrela, bien artean harremana eratu eta edukiak partekatu ahal izango dituzte.
**es** amigo
**fr** ami
**en** friend

95
**lagun-zerrenda** *(4)*
**es** lista de amigos
**fr** liste d'amis
**en** list of friends

96
**lehen mailako konexio** *(4)*
Sin. konexio zuzen *(4)*
LinkedInen moduko sare sozialetan, erabiltzaile batekin harreman zuzena eratua duen konexio edo erabiltzailea.
**es** conexión de primer grado; conexión directa
**fr** connexion du premier degré
**en** direct connection

97
**mashup** *(4)*
Eduki berri bat sortzeko beste web-aplikazio batzuetako edukia erabiltzen duen webgune edo web-aplikazioa.
**es** mashup
**fr** mashup
**en** mashup

98
**meme** *(4)*
Sare sozialen edo posta elektronikoaren bidez hedapen zabal eta lasterra duen umorezko mezu sinplea; gehienetan, jatorrizko irudi, bideo edo testu baten aldaera satirikoa behin eta berriz eginez transmititzen da.
**es** meme
**fr** mème internet
**en** meme

99
**mezu** *(4)*
**es** mensaje
**fr** message
**en** message

100
**mezu pribatu** *(4)*
Sin. mezu zuzen *(4)*
Sare sozial bateko bi erabiltzaileren arteko mezua, haiek bakarrik irakur dezaketena.
**es** mensaje privado; mensaje directo
**fr** message privé; message directe
**en** private message; direct message

**mezu zuzen**
Ik. mezu pribatu

**nick**
Ik. goitizen

101
**ohar-taula elektroniko** *(4)*
Sin. BBS *(4)*
**es** tablón de anuncios electrónico; BBS
**fr** babillard électronique; BBS
**en** Bulletin Board System; BBS

102
**orri** *(4)*
Facebooken moduko sare sozialetan, enpresa, erakunde edo pertsona publiko batek sor dezakeen espazio berezia. Helburu espezifikoak izateaz gainera, taldeek edo profilek ez bezalako aukerak eskaintzen ditu.
**es** página
**fr** page
**en** page

103
**orri ofizial** *(4)*
**es** página oficial
**fr** page officielle
**en** official page

104
**pasahitz** *(4)*
**es** contraseña
**fr** mot de passe
**en** password

105
**permalink** *(4)*
Blog-sarrera batera bideratzen duen URL esteka iraunkorra. Sarrera blogeko orrialde nagusitik desagertu eta artxiboetara pasatu eta gero ere esteka ez da aldatzen, eta, horregatik, erraztu egiten du sarrera hori beste blog eta webguneetan modu egonkorrean estekatzea edota geroago berreskuratzeko gordetzea.
**es** permalink
**fr** permalien
**en** permalink

106
**pingback** *(4)*
Webgune bateko artikulu edo dokumentu baterako esteka bat jartzen denean webgune horren egileek jakinarazpen bat jasotzeko balio duen sistema. Horri esker, egileak erraz jakingo du bere edukia nor eta non estekatzen ari den.
**es** pingback
**fr** pingback
**en** pingback

107
**podcast** *(4)*
Web-jario edo sindikazio-sistema baten bidez multimedia-fitxategiak (audioak, bideoak) banatzeko sistema. Erabiltzaileak fitxategi horiek jasoko ditu, eta nahi duenean erreproduzitzeko aukera izango du.
**es** podcast
**fr** podcast; baladodiffusion
**en** podcast

108
**posta elektroniko** *(4)*
**es** correo electrónico
**fr** courrier électronique
**en** electronic mail; e-mail

**posta elektronikoko helbide**
Ik. helbide elektroniko

109
**profil** *(4)*
Sare sozial bateko erabiltzaile batek bere buruaz eskaintzen dituen datu pertsonalen edo bestelako datuen multzoa, sare horretan duen identitatea nolabait eratzen duena.
**es** perfil
**fr** profil
**en** profile

110
**profil korporatibo** *(4)*
**es** perfil corporativo
**fr** profil d'entreprise
**en** corporate profile

111
**profil pertsonal** *(4)*
**es** perfil personal
**fr** profil personnel
**en** personal profile

112
**rage comic** *(4)*
Interneteko fenomeno berezia; emozioak irudikatzen dituzten karikaturazko aurpegi batzuk erabiltzean datza.
**es** rage comic
**fr** rage comic
**en** rage comic

113
**RSS** *(4)*
XML lengoaian oinarritutako fitxategi-formatua, web-jario bidez sarean informazioa banatzeko erabilia.
**es** RSS
**fr** RSS
**en** RSS

114
**saio** *(4)*
**es** sesión
**fr** session
**en** session

115
**sarrera** *(4)*
Sin. artikulu *(4)*
Blog batean idazten den testu sinatua, normalean argitalpen-data zehaztua duena. Bloga sarrera edo artikuluak idatzi ahala eguneratzen da, eta sarrera bakoitzak iruzkinak jaso ditzake.
**es** entrada; artículo
**fr** billet
**en** post; entry

116
**streaming** *(4)*
Sin. datu-korronte *(4)*
Internet bidez audioa edo bideoak era jarraituan transmititzeko teknika; hau da, hartzaileak fitxategia erreproduzi dezake ordenagailura guztiz deskargatua izan gabe.
**es** streaming
**fr** diffusion en flux; streaming
**en** streaming

**tag**
Ik. etiketa

117
**talde** *(4)*
Facebook edo LinkedInen moduko sare sozialetan, administratzaile batek gai bati buruzko interakzioa pizteko sortzen duen orria. Erabiltzaileak orri horretara batu daitezke, talde horretako kide egiteko.
**es** grupo
**fr** groupe
**en** group

118
**testu-koadro** *(4)*
**es** cuadro de texto
**fr** zone de texte
**en** text box

119
**trackback** *(4)*
Sin. atzeraesteka *(4)*
Blog batean beste blog bateko edukia gehitzen denean ezar daitekeen esteka berezia. Blogean esteka hori ezarriz, bere testu bat aipatu dela adierazten duen abisua jasoko du jatorrizko blogak. Normalean, jatorrizko testua duen blog-sarreraren iruzkinetan gehitzen da automatikoki abisu hori.
**es** trackback; retroenlace
**fr** rétrolien
**en** trackback

120
**traol** *(4)*
Twitterren moduko sare sozialetan, traol-hitz edo hashtag baten hasiera adierazteko erabiltzen den ikurra: #.
**es** almohadilla; hash
**fr** croisillon
**en** hash

**traol**
Ik. traol-hitz

121
**traol-hitz** *(4)*
Sin. traol *(4)*; hashtag *(3)*
Twitterren moduko sare sozialetan, traol (#) ikurraz hasita idazten den karaktere-segida, mezua etiketatzeko erabiltzen dena. Karaktere-segida horretan klik eginez, traol-hitz bera duten mezuak berreskura daitezke. Gai zehatz baten inguruan aritzeko erabiltzen da.
**es** etiqueta; hashtag
**fr** mot-dièse; hashtag
**en** hashtag

**tuit**
Ik. txio

**tuiteatu**
Ik. txiokatu

**tuitlari**
Ik. txiolari

122
**twitstar** *(4)*
Twitterren bidez ospe handia lortu duen pertsona, jarraitzaile asko izan ohi dituena.
**es** twitstar
**fr** twitstar
**en** twitstar

123
**txat** *(4)*
**es** chat
**fr** dialogue en ligne; bavardage
**en** chat

124
**txat-gela** *(4)*
**es** sala de chat
**fr** bavardoir; salle de conversation
**en** chat room

**txatean jardun**
Ik. txateatu

125
**txateatu** *(4)*
Sin. txatean jardun *(4)*
**es** chatear
**fr** dialoguer en ligne
**en** chat

126
**txio** *(4)*
Sin. tuit *(4)*
Twitterren idatzitako mezu laburra, 140 karakterera mugatua.
**es** tuit
**fr** tweet; gazouillis
**en** tweet

127
**txiokatu** *(4)*
Sin. tuiteatu *(4)*
Twitterren txio bat edo txioak idatzi.
**es** tuitear
**fr** twitter; gazouiller
**en** tweet

128
**txiolari** *(4)*
Sin. tuitlari *(4)*
Twitterren txioak idazten dituen erabiltzailea.
**es** tuitero
**fr** twitteur
**en** twitter

**uneko gai**
Ik. joerako gai

129
**web-interfaze** *(4)*
**es** interfaz web
**fr** interface web
**en** web interface

130
**web-jario** *(4)*
Webgune batean egindako eguneratzeen informazio laburtua jasotzen duen fitxategia. Erabiltzaileak bere agregatzailean jaso dezake, baldin eta jario horretara harpidetuta badago.
**es** fuente web
**fr** fil d'actualité
**en** feed; web feed

131
**web-orri** *(4)*
**es** página web
**fr** page web
**en** web page

132
**web-sindikazio** *(4)*
Harpidetza egiten duten erabiltzaileei webgune bateko eduki eguneratuak automatikoki jario bidez banatzen dizkien sistema.
**es** sindicación web
**fr** syndication de contenu Web
**en** web syndication

133
**webcast** *(4)*
Web bidez audioak edo bideoak eskaintzeko prozedura. Datu-korrontearen teknologia erabiltzen du, fitxategi horiek zuzenean edo geroago erreproduzitzeko.
**es** webcast; difusión por web
**fr** webdiffusion
**en** webcast

134
**widget** *(4)*
Aplikazio edo programa txikia, gailu mugikorretik, ordenagailuko mahaigainetik edo webgune batetik erraz ireki daitekeena. Informazio jakin bat kontsultatzeko edo maiz erabiltzen den funtzio bat modu sinplean erabiltzeko balio du.
**es** widget
**fr** widget
**en** widget

135
**zale** *(4)*
Sin. fan *(4)*
Facebookeko orri batek duen jarraitzailea. Orri hori atsegin izateko botoiari emanez bihurtzen da erabiltzaile bat zale.
**es** admirador; fan
**fr** fan
**en** fan

136
**zirkulu** *(4)*
Google plus sare sozialean, erabiltzaile baten kontaktu jakin batzuk biltzen dituen taldea, harremanak eta edukiak partekatzeko bidea ematen duena.
**es** círculo
**fr** cercle
**en** circle

137
**zirriborro** *(4)*
Argitaratzeko sisteman sartu den baina oraindik argitaratu ez den sarrera, artikulu edo mezua. Geroago zuzendu edo hobetzeko asmoa dagoenean gorde ohi da sistema horretan.
**es** borrador
**fr** brouillon
**en** draft

# 3. TERMINO OROKORRAK

138
**adware** *(4)*
Sin. publizitate-software *(4)*
Sistema informatiko batean sartu eta automatikoki iragarki bat exekutatzen edo bistaratzen duen softwarea.
**es** adware; software de publicidad
**fr** logiciel publicitaire
**en** adware

139
**Aitortu** *(4)*
Sin. BY *(4)*
Creative Commons lizentzietan erabiltzen den klausuletako bat; edukien egile edo iturriak aipatu beharra ezartzen du.
**es** Atribución; BY
**fr** Paternité; BY
**en** Attribution; BY

140
**autentifikazio** *(4)*
**es** autenticación
**fr** authentification
**en** authentication

141
**azken erabiltzaile** *(4)*
**es** usuario final
**fr** utilisateur final
**en** final user

142
**azpiegitura zerbitzu gisa** *(4)*
**es** infraestructura como servicio
**fr** infrastructure en tant que service
**en** infrastructure as a service; IaaS

**banner**
Ik. iragarki-banda

143
**bat-bateko mezularitza** *(4)*
**es** mensajería instantánea
**fr** messagerie instantanée
**en** instant messaging

144
**bezero** *(4)*
Zerbitzari bati konektatuta, hari informazioa, zerbitzuak edo bestelako baliabideak eskatzen dizkion programa informatikoa.
**es** cliente
**fr** client
**en** client

145
**bezero mugikor** *(4)*
Telefono, tableta edo antzeko gailu mugikor batean instalatuta dagoen programa bezeroa; aplikazioak programatzeko interfazea erabiltzen du sare sozial batera konektatzeko.
**es** cliente móvil
**fr** client mobile
**en** mobile client

146
**bideo biral** *(4)*
Sare sozialen edo posta elektronikoaren bidez hedapen zabal eta lasterra duen bideoa.
**es** video viral
**fr** vidéo virale
**en** viral video

147
**bideoak ostatatzeko zerbitzu** *(4)*
**es** servicio de alojamiento de videos
**fr** service de hébergement de vidéos
**en** video hosting service

148
**birbideratze** *(4)*
**es** redireccionamiento
**fr** redirection
**en** redirection

149
**bisita** *(4)*
Internautak orri batean egiten duen sartu-irten bakoitza.
**es** visita
**fr** visite
**en** visit

150
**blogosfera** *(4)*
Blogek, blogariek eta haien arteko konexio eta interakzioek osatutako komunitate edo sistema.
**es** blogosfera
**fr** blogosphère
**en** blogosphere

**BY**
Ik. Aitortu

151
**copyfree** *(4)*
**es** copyfree
**fr** copyfree
**en** copyfree

152
**copyleft** *(4)*
**es** copyleft
**fr** copyleft
**en** copyleft

153
**copyright** *(4)*
**es** copyright
**fr** copyright
**en** copyright

154
**cracker** *(4)*
Sistema informatiko bateko segurtasun-sisteman baimenik gabe sartzen saiatzen den pertsona. Crackerraren asmoa, gehienetan, onuraren bat lortzea edo protesta egitea izan ohi da; askotan, lizentziapeko softwarean aldaketak egiten dituzte lizentziarik gabe erabili eta banatzeko.
**es** cracker
**fr** cracker
**en** cracker

155
**Creative Commons** *(4)*
Irabazi-asmorik gabeko erakundea, sormenezko lanak teknologia berrien bidez partekatzeko tresna juridiko berriak (CC lizentziak) eratu dituena. Lau klausula bereizten ditu: Aitortu (BY), EzKomertziala (NC), LanEratorririkGabe (ND) eta PartekatuBerdin (SA). Eta, klausula horien konbinazioz, sei lizentzia-mota eskaintzen dira, egileak publikoari eman nahi dizkion eskubideak hauta ditzan: CC BY, CC BY-SA, CC BY-ND, CC BY-NC, CC BY-NC-SA eta CC BY-NC-ND.
**es** Creative Commons
**fr** Creative Commons
**en** Creative Commons

**cyberbullying**
Ik. ziberjazarpen

156
**datu irekiak** *(4)*
**es** datos abiertos
**fr** données ouvertes
**en** open data

**datu-babes**
Ik. datuak babeste

157
**datuak babeste** *(4)*
Sin. datu-babes *(4)*
**es** protección de datos
**fr** protection des données
**en** data protection

158
**eduki** *(4)*
**es** contenido
**fr** contenu
**en** content

159
**eduki ireki** *(4)*
Sin. eduki libre *(4)*
Berrerabiltzeko, berriro banatzeko edo bertsioak egiteko eskubideei buruz lege-murrizketarik ez duen edozein eduki: testua, irudia, argazkia edo bestelakoa.
**es** contenido abierto; contenido libre
**fr** contenu libre
**en** open content; free content

**eduki libre**
Ik. eduki ireki

**eduki-arduradun**
Ik. eduki-editore

160
**eduki-editore** *(4)*
Sin. eduki-arduradun *(4)*
Komunitate birtual batentzat informazioa bilatu, hautatu, editatu, antolatu eta partekatzeaz arduratzen den pertsona.
**es** responsable de contenidos
**fr** éditeur de contenu
**en** content curator

161
**eduki-edizio** *(4)*
Sin. edukiez arduratze *(4)*
Interneten eskaintzen diren eduki guztietatik abiatuta, komunitate birtual batentzat garrantzitsua den informazioa bilatu, hautatu, editatu, antolatu eta partekatzea.
**es** curación de contenidos
**fr** édition de contenu; curation de contenu
**en** content curation

162
**edukiak kudeatzeko sistema** *(4)*
**es** sistema de gestión de contenidos
**fr** système de gestion de contenu
**en** content management system; CMS

163
**edukien kudeaketa** *(4)*
**es** gestión de contenidos
**fr** gestion de contenu
**en** content management

**edukiez arduratze**
Ik. eduki-edizio

164
**eguneratu** *(4)*
**es** actualizar
**fr** mettre à jour
**en** update

165
**ekitaldien zuzeneko emanaldi** *(4)*
**es** retransmisión de eventos en directo
**fr** retransmission d'événements en direct
**en** broadcasting of live events

166
**erabilera-arau** *(4)*
**es** norma de uso
**fr** conditions d'utilisation
**en** term of use

167
**erabilgarritasun** *(4)*
Webgune edo programa informatiko baten egokitasuna. Erabilgarritasuna neurtzeko, erabilera errazten eta atsegin egiten duten hainbat ezaugarri hartzen dira kontuan, hala nola diseinua, edukiak, nabigazioa eta abar.
**es** usabilidad
**fr** usabilité
**en** usability

168
**erabiltzaile** *(4)*
**es** usuario
**fr** utilisateur
**en** user

169
**erabiltzaile aurreratu** *(4)*
**es** usuario avanzado
**fr** utilisateur avancé
**en** advanced user

**errepositorio**
Ik. gordailu

170
**esteka** *(4)*
**es** enlace; vínculo
**fr** lien
**en** link

171
**estekatu** *(4)*
**es** enlazar; vincular
**fr** lier
